

HIZNET 2007

Hizkuntza plangintza ikastaroa. Internet bidezko gradu-ondokoa

Sakontze egitasmoa:

**EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREN
BIDEAN, TRATUAK LANDU
LANGILEEKIN ENPRESA HANDIETAN**

Arrasate, 2007ko irailaren 10a

Letona Biteri, Enrike

1. AURKIBIDEA

1.	AURKIBIDEA	2
2.	SARRERA	4
3.	MARKO TEORIKOA	6
3.1.	NUKLEARIZAZIOA, FUNTZIOAK ETA MOTIBAZIOA	6
3.2.	MOTIBAZIOAREN OSAGAIK	6
3.3.	DISONANTZIA KOGNITIBOA	7
3.4.	DISKURTSO MOTAK	7
3.5.	HIZKUNTZA JOKAEREN ALDAKETAK	8
3.6.	PERTSUASIOA ETA KONPROMISOAK BARNERATZEA	9
3.7.	ERALDAKETA PROZESUAK	9
4.	TRATUEN PROZESUA ENPRESA HANDIETAN	11
4.1.	ZEINTZUK DIRA HELBURUAK ETA ZEIN DA ABIAPUNTUZKO HIPOTESIA.	11
4.1.1.	Zein da ekintza honen helburua	11
4.1.2.	Abiapuntuzko hipotesiak	11
4.2.	NONDIK BIDERATU ENPRESAN TRATUEN PROZESUA	12
4.2.1.	Lehen urratsa: Euskara Batzordea	12
4.2.2.	Bigarren urratsa: organo sozialak edo bilera operatiboak	12
4.2.3.	Hirugarren urratsa: erabilera taldeak	12
4.3.	SENTSIBILIZAZIO LANAK	13
4.3.1.	Euskararen berreskurapenaren eboluzioa eta lantegietako euskara planak bultzatzeko arrazoiak	13
4.3.2.	Gunea eta egitura definitu	14
4.3.3.	Kanpainarako logoa edota esaldia/esaldiak sortu	15
4.3.4.	Tratua egin behararen arrazoiak prestatu langileei aurkezteko	16
4.4.	TRATUAK EGIN	17
4.4.1.	Zeinentzat tratuak	17
4.4.2.	Tratuen kopurua eta sailkapena	17
4.4.3.	Tratuak nola egin	19
4.5.	ZABALKUNDEA	19
4.5.1.	Publikotasuna	20
4.6.	JARRAIPENA	22
4.6.1.	Gogorarazte lanak:	22
4.7.	BETETZE MAILA	28
4.7.1.	Nola bete?	28
4.7.2.	Nahia eta errealitatea	30
4.8.	ERREFORTZUA ETA ERREKONOZIMENDUA	30
4.9.	PROZESU ERREPIKAKORRA	31
5.	EMAITZEN AZTERKETA ETA BI ENPRESEN ARTEKO DESBERDINATASUNAK	32
5.1.	Tratuen Prozesua martxan jarri	32
5.2.	Sentsibilizazio lana	33
5.3.	Partehartzea	33

5.4. Jarraipena	33
5.5. helburuen azterketa	34
5.5.1. Euskara planaren berri lantegi guztian zabaltea.....	34
5.5.2. Kontzientzia eta motibazioa indartzea.....	34
5.5.3. Euskarazko klaseetan jendea apuntatzea.....	34
5.5.4. Euskararen erabilera handitzea.....	35
5.6. Planteatutako hipotesia	36
6. BIBLIOGRAFIA.....	37

2. SARRERA

Zer da tratu bat egitea? Nork ez du egin tratu bat bikotearekin, lagunarekin seme-alabekin? Zer bilatzen da tratu bat eginez? Tratu bat egiterakoan emaitza bat lortu nahi da. Gure kasuan euskaren normalizazioa bilatzen dugunez, urrats txiki bat bilatzen dugu arlo horretan, laburbilduz, euskara gehiago erabiltzea lantegiko arlo guztietan.

Tratuak egitea planteatzen denean lantegi batean, normalean ez da ekintza isolatu bat izaten, nahiz eta nire ustez lehen ekintza izan daitekeen, lantegi horretako euskara planaren diseinua egin ondoren. Edozein modutan, esperientzia hau aurrera eramanez den bi enpresetan, Arrasateko Fagor Electronica Koop. E.n eta Bergarako Soraluze Koop. E.n EMUN Koop. E. ak diseinatutako euskara plana duela hainbat urte martxan dago.

Ez daude bi enpresa berdinak. Pertsonak osatzen dute enpresa eta enpresa guztietan pertsona desberdinak daudenez, ezin izan inoiz berdinak bi enpresa. Eta ondorioz enpresa bera aldatu egiten da bertako langileak aldatzen diren heinean.

Era berean, pertsonak aldatzen joaten dira eta pertsona bera hogeita bost urterekin edo berrogeita hamabost urterekin kasu gehienetan ez da pertsona bera. Eboluzionatzen goaz eta horretan faktore asko daude jokoan. Askotan entzuten da: irakasle hark aldatu zuen nire bizia, edota pertsona hark izugarriko eragina izan zuen niregan eta hari esker orain bizimodua beste era batera ikusten dut.

Gizakiak konplexuak gara. Jarrera eta portaera koherentziaz berdina izan beharko luke, baina behin eta berriz ikusten dugu pertsona batek euskararen aldeko jarrera duela eta portaerez, berriz, guztiz aurkakoa adierazten digula, sarri bera ere horretaz jabetu gabe.

Beste batzuetan gezurra behin eta berriz errepikatuta egi bilakatzea lortu izan dute jende askoren burmuinean eta hizkuntza minorizatu batek arerio boteretsuez inguratuta dago. Nork ez du entzun horrelakoak: bi hizkuntza batera ikasteak kalte egiten dio umeari nahastu egiten duelako, euskarak ez du balio goi mailako hizkuntza gisa, hizkuntzak berez hiltzen dira eta euskara ere desagertzera behartuta dago,...Horrelakoak izugarri luzatu daitezke eta horrelakoak jende askoren burmuinean daude era kontziente edo inkontzientean.

Hizkuntza teknikariorik dagokigu informazio zuzena ematea, guri dagokigu elementu berriak sartzea jendeak hausnartzeko eta ideiaz aldatzeko, guri dagokigu laguntza eskaintzea, berez gauzak ez direla aldatzen azaltzeko. Euskara gureganatzeko ahalegina egin behar dugu eta

aurrerapauso txikiak emanez, handiak ere etorriko dira. Pertsona batzuk, kasu honetan Euskara Teknikariak eta Euskara Batzordeak dinamizatuko ditugu euskararekin lotuta dauden gai guztiak, baina parte hartzea guztiona da edo euskara planak ez du izango inolako etorkizunik.

Euskara plana, beraz, indarrean dago aspalditik tratuen metodologia martxan jarri dugunean eta beste ekintza ugari egiten dira honekin batera. Indarrean ditugu ere euskarak aurrera egiten duen edo ez ikusteko neurketa objektiboak eta horiek adieraziko digute egindako ekintzekin emaitza onak lortu ditugun edo ez.

Lan honi, nire ustez egokia den marko teoriko batekin emango diogu hasiera, laburbilduz, nola lortu ohiturak aldatzea izango litzateke marko honen ardatza. Ondoren, tratuen prozesua nola eraman den aurrera bi enpresetan azalduko dut eta bukatzeko, horietako enpresa bakoitzean lortutako emaitzak zeintzuk izan diren eta datu hauei buruzko azterketa laburra.

Bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi EMUN koop. E.ko bazkidea naizela eta lan honetako esperientzia aurrera eramateko beste lankideen laguntza izan dudala. Sakontze lana bera nik neuk egin dut, jakina, baina bertan aipatzen diren gauza asko eta asko ezin izango nuen aurrera eraman arlo praktikoan, ez horrela gutxienez, EMUNen banaka/taldean lan egiteko daukagun eredurik gabe.

3. MARKO TEORIKOA

Lan honetan, aurretik aipatu den bezala, enpresa handietan tratuak egiteko metodologia aztertu nahi da. Enpresa handia zein txikia izan gauza batzuk ez dira aldatzen tratua bera ez baitu enpresak egiten pertsonak baizik, nahiz eta enpresak berak eragina izan dezakeen. Eta tratuak egiteko planteamendu honetatik aldaketa bat sortu nahi da, hau da, gaztelania erabiltzetik euskara erabiltzera pasatu nahi da. Beraz, lehen urratsa lan honen oinarrian dagoen marko teorikoa azaltzea da. Beraz, lehen atal honetan hizkuntza arloan ohiturak aldatzeko zein prozesutatik igaro behar den azalduko da eta era berean garrantzitsuak diren kontzeptu batzuen berri emango da. Bukatzeko, esan behar dut Marko teoriko hau EMUNeko *Tratuen metodologia* (2006) barne proiektuan landu genuela EMUNeko lankide talde batek.

3.1. NUKLEARIZAZIOA, FUNTZIOAK ETA MOTIBAZIOA

Txepetxen (1987) ustez, hizkuntzaren normalizazioa lortzeko, gune sinbolikoa nuklearizatu behar da, euskarak faltan dituen espazioak edo funtzioak berreskuratu behar dira eta hiztunak motibatu behar dira espazio berri horietan euskaraz egin dezaten.

Normalizaziorako beste baldintza bat "izateko nahia" da, eta bere osagaiak hiru dira:

- 1-Norbanakoaren baikortasun kritikoa
- 2-Ahalegin pertsonala eta kolektiboa
- 3-Ahalegin horien balioa sozialki eta pertsonalki aitortuak izatea

Tratuen metodologiak besteak beste, espazio berrietan euskara erabiltzeko hiztunak motibatzea bilatzen du, ahalegin pertsonala eta kolektiboa batzen ditu, eta ahalegin horien balioa aitortzea ahalbideratzen du.

3.2. MOTIBAZIOAREN OSAGIAK

Hiztunek euskara erabiltzeko edo ikasteko motibazioak hiru osagai ditu (Gardner, 1985 Hiznet 2005-2006, 4. ikasgaia), hiru elementuren konbinaketa da: nahia edo desioa, helburu hori lortzeko egiten den esfortzua, eta helburu horrekiko aldeko jarrerak. Zenbat eta handiagoa izan elementuren bat, gero eta aukera gehiago dago hizkuntza hori ikasteko edo erabiltzeko. Adibidez, jarrera bat zenbat eta aldekoago izan, orduan eta aukera gehiago hizkuntza hori ikasi edo erabiltzeko.

3.3. DISONANTZIA KOGNITIBOA

Jarreraren eta portaeren arteko erlazioa azaltzeko Leon Festingerek (1957, Hiznet 2005-2006, 4. ikasgaia) Disonantzia Kognitiboaren Teoria garatu zuen: pertsona guztiek pentsatzen eta egiten duenaren arteko kongruentzia izateko nolabaiteko joera dute; jarreraren eta jokabidearen artekoa, alegia. Pentsatzen eta egiten denaren arteko inkongruentzia gertatzen denean, disonantzia egoera egoten da. Disonantzia egoera horrek tentsioa sortzen du, eta pertsona oreka berrezartzera bultzatzen. Disonantzia murrizteko hiru estrategia erabiltzen dira:

- Elementuetako bat aldatu, elementuetako bat trinkoagoa izan dadin.
- Kognizio berriak sortu elementuetako baten garrantzia areagotu eta bestearen pisu disonante erlatiboa gutxitzeko.
- Elementuen garrantzia aldatu beraien artean hain kontrakoak ez izateko.

Tratuen metodologiaren bitartez, pentsatzen eta egiten denaren arteko kongruentzia lortu nahi da. Beste era batera esanda, pertsona baten euskararekiko jarrera eta portaera ez badatoz bat, disonantzia gertatuko da, eta disonantzia hori murrizteko erabilerak duen garrantziaz jabetu beharko da eta horretan eragin. Adibidez, disonantzia da pertsona batek aldeko jarrera duenean eta euskararik erabiltzen ez duenean.

3.4. DISKURTSO MOTAK


Pertsonen jarrerak ezagutzeko bide bat da eurek ekoizten dituzten diskurtsoak ezagutzea. Pertsonen diskurtsoak eta posizioak ezagututa, jarreretatik jokaeretara dagoen jauzian nolabaiteko zubia eraiki ahal dugu. Hiru hauek dira, langileek gure enpresetan euskararen inguruan ekoiztutako diskurtsoak:

- *Indiferentzia* diskurtsoa: diskurtso horren ekoizleek egoera dagoen horretan onartzen dute, ez dute aldaketa beharrik sentitzen. Norberaren aukera dela euskara erabiltzea diote eta euskara arazo sortzaile dela ere bai. Arazorik edo lanik ez dute nahi, bestearekiko –erdal hiztunarekiko– errespetua aldarrikatzen dute eta euskara/gaztelania kategoria desberdinetan sailkatuta ikusten dute (euskara 2. mailakoa).
- Diskurtso *borondatetsua*: euskara euren identitatearen oinarria dela diote eta euren burua euskalduntzat dute. Gizartearen dimentsioa azpimarratzen dute. Esfortzua egitea euskararekin lotzen dute eta horretarako prest daude neurri batean. Euskara enpresan

erabiltzeko gogoa dute eta euskara erabiltzeko plangintzaren beharra eta enpresa planean txertatuta egon behar dela aipatzen dute.

- Diskurtso *eragilea*: euskara gure hizkuntza, gure eskubidea eta altxor unibertsala dela esaten dute. Nortasun sentimendua, euskaldun izatea, maitasun sentimendua euskararekin lotzen dute. Inplikazio handia duten pertsonak dira, ardura eta konpromisoa euren ezaugarriak dira eta euskara erabiltzeko esfortzua eta lana egin behar dela onartzen dute. Euskaraz eroso daude, euskara beharrezkoa dela ikusten dute.

Ahal den eta eraginkortasun handiena lortzeko, gure tratuen metodologian, indiferentzia diskurtsotik borondatetsu diskurtsora eta diskurtso borondatetsutik eragilerara jauzia egiteko zuzendutako materiala erakutsiko dut.



3.5. HIZKUNTZA JOKAEREN ALDAKETAK

Hizkuntzako jokaeran aldaketak eragiteko proiektuetatik ateratako ondorioak dira honako hauek:


- Hitz egitea gutxienez biren arteko kontua den unetik izaera kolektiboa du, komunikazioa baita helburu.
- Jokaera kolektibo hori taldeak adostu eta arautzen du. Talde batean hizkuntzako jokaeran aldaketak eragiteko, talde horrek arau moduko batzuk sortu behar ditu gero denek betetzeko ; horrekin taldea bera bihurtzen dute eragile.
- Hizkuntza ohituraren trataerak ikuspegi kolektiboa eskatzen du, horregatik taldea dugu esku hartzearen unitate.

- Taldeak baldintza jakin batzuetan parte hartzeko prest dagoela adierazi behar du (euskaraz jarduteko prest dagoela).

Tratuen metodologiak izaera kolektiboa, arauak eta parte hartzeko prest egotea hartzen ditu bere baitan.

3.6. PERTSUASIOA ETA KONPROMISOAK BARNERATZEA

Pertsuasioan – komunikatzaile bat beste pertsona edo pertsona talde batengan sinesmen, jarrera eta/edo jokabide aldaketa bat sortzen saiatzen da mezu baten transmisioa erabiliz - eta jarrera aldaketa prozesuan arreta jartzea, argumentuak ulertzea eta mezuaren aurrean jendeak duen jarrera edo posizioa kontuan hartzea garrantzizkoak dira. Bestalde, pertsuasioak badu harremanik konpromisoak barneratzeko prozesuan liderrak jokatzen duen rolaekin, lider horrek pertsuasioa erabiltzen baitu besteak bere konpromisoekin identifikatzeko. Beraz, ondorengoak dira konpromisoen barneratze prozesuak jarraitzen dituen pausoak:



3.7. ERALDAKETA PROZESUAK

Portaeraren aldaketa eragiten duten prozesuetan, eraldaketa prozesu guztietan bezala, interes kontrajarriak ager daitezke. Horregatik, horrelako prozesuetan ezinbestekoa izaten da gatazka era eraikitzaile batean kudeatzeko estrategiak erabiltzea, hau da, integrazioa eta konpromisoa.

Eraldaketa prozesuetan erresistentziak egoten dira (ohitura mantentzea, segurtasuna galtzeko beldurra, inertiak,...). Horrelakoetan konfiantza giroa sortzea ezinbestekoa da, eta

komeni da zuzendaritza inplikatzeari, helburu anbiziotsuak eta lorgarriak markatzea eta baliabideak jartzea. Tratuen metodologiak aldaketa prozesua proposatzen du, eta prozesu horrek arrakasta izateko elementu hauek kontuan hartu beharrekoak dira:

- Kooperazio borondatea
- Konpromisoa aldatzeko
- Erantzukizuna eta heldutasuna
- Errealitateari abiaturik, helburuak anbiziotsuak baina ez irrealak
- Aldaketa prozesu guztietan iritzia etengabe aldatzeko

4. TRATUEN PROZESUA ENPRESA HANDIETAN

Berez, tratuak egiteak aldaketa pertsonala eskatzen badu ere, aldaketa arlo batean eskatzen da, lan arloan hain zuzen ere. Eta gune horretan arau batzuk daude, funtzionatzeko era bat, erroetaraino sartutako ohiturak, eta gero eta handiagoa izan gune hori, gero eta zailtasun gehiago dakar; alde batetik, erabakiak enpresa mailan eta organo desberdinetan hartu behar direlako eta bestetik, jende askorengana iristeko ekintza batek medio gehiago eskatzen dituelako, bai materialak, bai pertsonalak.

Enpresa batean tratuak egiteko lehenik eta behin enpresan nondik bideratu behar den erabaki behar da. Euskara planetako gune erabakitzailea Euskara Batzordea da, beraz, hortik abiatuz, organo operatibo edo organo sozialetatik bideratzea erabaki behar da, eta ondoren, lan hori aurrera eramateko lagungarriak izango diren beste gune batzuk sortu edo dagoeneko euskara arloan sortuta daudenak erabili, adibidez, euskararen erabilera taldeak.

4.1. ZEINTZUK DIRA HELBURUAK ETA ZEIN DA ABIAPUNTUZKO HIPOTESIA.

4.1.1. Zein da ekintza honen helburua

Helburu bakarra baino hainbat helburu bultzatu nahi da ekintza honekin. Hauek dira bultzatu nahi diren helburuak:

- a) Euskara planaren berri lantegi osoan zabaltzea.
- b) Kontzientzia eta motibazioa indartzea.
- c) Euskarazko klaseetan jende gehiagok izena ematea.
- d) Euskararen erabilera handitzea.

4.1.2. Abiapuntuzko hipotesiak

Langile bakoitzak tratuak egiteko, lehenik langile guztiengana iristea lortu behar da. Horretarako hamar minutuko aurkezpen bat egingo zaie eta horrela euskara planaren berri jasoko dute langile guztiak. Honekin motibazioa eta kontzientzia indartuko da. Bestalde, aukera izango da banan-banan guztiekin zuzenean egoteko eta aurkeztuko zaien konpromisoetariko bat euskarazko klaseetara joatea denez, horri buruz hitz egiteko aukera

ere izango da. Eta bukatzeko, lortu nahi dena da tratuak eginez euskararen erabilera handitzea lantegian.

4.2. NONDIK BIDERATU ENPRESAN TRATUEN PROZESUA

4.2.1. Lehen urratsa: Euskara Batzordea

Euskara plana indarrean dagoen enpresa batean, printzipioz osatuta egoten da Euskara Batzordea eta bera da euskara arloari dagokionez erabakiak hartzeko gune garrantzitsuena. Printzipioz enpresa bateko diseinua egiten denean osatzen da Euskara Batzordea eta euskara teknikariak izaten da bertako dinamizazioa. Eta behin goiko organoak ildo nagusia onaartu ondoren, organo honek hartzen ditu erabakiak eta tratuak egiteko prozesua ere organo honetatik abiatzen da.

4.2.2. Bigarren urratsa: organo sozialak edo bilera operatiboak

Lan honetan aztertuko diren bi enpresak kooperatibak dira, beraz, organo aldetik ez dago aldaketarik. Kooperatiba bateko organo nagusia normalean urtean behin biltzen den Batzar Nagusia da. Urtean zehar funtzionatzen duena, berriz, Kontseilu Errektorea da. Printzipioz honek proposatzen du lantegiko zuzendaritza norik eramango duen eta Batzar Nagusiak berresten du.

Arlo honetan txostenean aztertuko diren bi enpresetan desberdintasuna badago. Fagor Electronica Koop E.n, organo Sozialetik, Kontseilu sozialetik hain zuzen ere, bideratu zen tratuen metodologia eta Soraluze Koop. E.n, bilera operatiboetatik, hau da, lantegiko departamentu bakoitzak egiten dituen ohiko bileretatik.

4.2.3. Hirugarren urratsa: erabilera taldeak

Erabilera taldeak euskararen normalizazioaren alde lan egiteko boluntarioez osatutako taldeak dira eta bere lana ezagutza, erabilera eta motibazioa handitzeko hainbat ekintza bultzatzea da.

Aurretik aipatu da enpresa handietan jende guztiarengana heldu nahi bada, jende kopuru handia behar dela. Jende kopuru hori erabilera taldeetatik lortzea ikusten da egokiena. Alde batetik, euskara arloan sentsibilitate handia duen jendea da eta bestetik, erabilera taldeetan daudenez, lana egiteko prestutasuna ere badute.

4.3. SENTSIBILIZAZIO LANAK

4.3.1. Euskararen berreskurapenaren eboluzioa eta lantegietako euskara planak bultzatzeko arrazoiak

Enpresa ez da gizartetik kanpo dagoen gun bat. Enpresa komunitate batean txertatuta dago, eta ondorioz, komunitate horrekiko lotura eta erantzukizuna badu. Are gehiago kooperatiba izanda eta bertako langileak onartutako estatutuetan hori onartzeaz gain, aurrerago doaz, azpimarratuz euskara lantegiko hizkuntza ofiziala ere badela eta urratsak eman behar direla honen normalizazioa lortzeko.

a) Ezagutza, erabilera eta matrikulazio datuak

Lehenik eta behin ezagutzaren aldetik errealitatea zein den azaldu zaie bi enpresetako langileei. Horretarako Euskal Herriko ezagutza datu orokorretatik abiatuz, enpresa kokatuta dagoen herriko ezagutza datuak eman zaie, azkenean enpresa bertako ezagutza datuak aurkezteko.

Ezagutza datuak, ordea, ez dira nahikoak errealitatearen egoera gardena aurkezteko eta langileen kontzientzia indartzeko beste bi datu ere funtsezkoak direla aurreikusi da: erabilera datuak eta matrikulazio datuak. Eta osatuenak horiek direnez, Euskal Herri mailakoak 2001eko datuak erabili dira aurkezpen honetan, eta lantegikoak, berriz, 2004koak.

Euskal Herriko datuak
- 2001eko ezagutza: %27,6
- 2001eko erabilera: %13,5
- 2001eko matrikulazioa: %43,3

Enpresa bakoitza kokatuta dagoen herriko datuak:

Fagor Electronica Koop. E.: Arrasate	Soraluce koop. E.: Bergara
- 2001eko ezagutza: %55,	- 2001eko ezagutza: %70,
- 2001eko erabilera: %37	- 2001eko erabilera: %42
- 2001eko matrikulazioa: %68,8	- 2001eko matrikulazioa: %83

Eta bukatzeko lantegi barruko datuak:

Fagor Electronica Koop. E.:	Soraluce koop. E.:
- Ezagutza: 2004: %60	- Ezagutza:2004: %80
- Erabilera: 2004: %30	- Erabilera: 2004: %51

b) Euskara arloan gizarteak emandako urrats garrantzitsuak

Kontuan izan behar dugu ez dagoela denborarik luze hitz egiteko. Beraz, hiru arlo aukeratu dira eta horiei buruz azalpentxo bat eman zaie. Hiru puntu horiek honako hauek dira:

- Euskara berpizteko ikastolen sorrera eta urteetako lana garrantzitsua.
- Helduen euskalduntze-alfabetatze prozesua ere garrantzi handikoa.
- Komunikazio arloan urrats handia: Argia, ETB1, herrietako komunikabide euskaldunen sorrera (irradi, telebista, astekari), Euskaldunon Egunkaria, Berria...

Eta bukatzeko, lan munduan euskara sartzea ezinbesteko dela aipatzen zaie. Bestela, zertarako euskarazko heziketa eman haurrei eta gazteei, gero, lan munduan gaztelaniaz bizitzeko? Beraz, euskararen berreskurapenari zentzua emateko lan mundua funtsezkoa dela azaltzen da eta era batera edo bestera guztiok dugula erantzukizuna. Oso garrantzitsua ikusi da guztiok barneratzea ardura guztiona dela eta guztiok daukagula zer egin. Ezin dela esan: gazteek egingo dute. Gazteei erraztasunak eman behar dizkiegu eta bidea zabaldu. Euskara normalizatzeko plan zehatza martxan izan gabe, gauzak ez dira berez aldatuko eta "gaztelaniaren erreinuak" irentsiko ditu.

4.3.2. Gunea eta egitura definitu

Egitasmoaren bultzatzaileen helburua lantegiko langile guztiengana iristea izan da. Horretarako lantegietako gune naturalak errespetatzea ikusi dugu egokiena. Beraz, bulegoetan departamentuka banatu dugu lantegia, zuzeneko langileekin, berriz, sekziotan banatzea ikusi dugu egokien.

Behin guneak definitu ondoren, departamentu edo sekzio bakoitzean gurekin batera lana egingo duen pertsona bat aurkitu beharrean egon gara. Aurreko puntu batean aipatu dudan bezala, erabilera taldeetako jendeak parte hartzea bultzatu dugu, baina gune guztietan ez daude eta beste pertsonak batzuekin hitz egin behar izan dugu.

4.3.3. Kanpainarako logoa edota esaldia/esaldiak sortu

Garrantzitsua iruditu zaigu tratuak egitearen kanpaina logo batekin identifikatzea. Kasu honetan, landu behar ziren bi enpresetan euskara teknikari bera aritu behar zenez eta herri desberdinetan finkatuta daudenez, logo bera erabiltzea pentsatu da.

Behin eta berriz entzun izan dugu euskaldunen artean (eta beste toki batzuetan, jakina) tratu bat egiterakoan bi pertsonak eskua ematea nahikoa zela. Beraz, bi eskuren argazkia logo egokia izan zitekeela pentsatu dugu. Horrez gain, hainbat esaldi argigarri eranstea pentsatu dugu eta honekin guztiarekin hortik aurrera tratuak egiteko, konpromisoak hartzeko, erabiliko ditugun fitxa guztietan ageriko den logoa sortu dugu.

Bi enpresetan berdina da, desberdintasun bakarra enpresa bakoitzeko fitxetan enpresa horretako logoa agertzen dela.

Soraluce Koop. E.ko logoa:



Fagor Electronica Koop. E.ko logoa:



4.3.4. Tratua egin beharraren arrazoiak prestatu langileei aurkezteko

Jendeak, nolabait, beldur pixka bat dio konpromiso hitzari. Konpromisoak hartu edo tratuak egiteari buruz, Emunen egindako barne proiektu batean konpromiso hitza erabili beharrean tratuak egin erabiltzea erabaki zen. Nik lan honetan, orain arte egin dudak bezala, bide hori jarraituko diot. Badirudi jendeak errazago egin ditzakeela tratuak. Baina hala ere askotan ez da ulertzen zergatik egin behar diren tratuak eta hori da argi eta garbi azaldu behar den gauza. Hainbat kontzeptu funtsezkoak dira:

Boluntarioa

Ezer baino lehen azaldu behar zaie ekintza hau guztiz boluntarioa dela, nahi duenak parte hartzen du eta ez duenak parte hartu nahi, ez du hartzen, eta ez da ezer gertatzen.

Non kokatu

Ekintza hau ez da zerbait isolatua. Plan baten barruan dagoen ekintza da. Beste era batera azalduz, enpresak euskararen erabilera lantegian normalizatzeko plan batean murgilduta dago eta ekintza hau plan horretako motibazio atalean kokatzen dugu.

Tratuak zergatik egin?

Esan dugunez partehartzea librea dela, guztiok gara boluntarioak. Hala eta guztiz ere, eta nahiz eta aldeko jarrera izan, sarritan behartzen den zerbait bezala ulertzen da. Eta behin puntu honetan garbi adierazi behar da behin tratuak hartu ondoren, tratu horiek bete egin behar direla eta horretarako behin eta berriz oroitaraziko dugu tratu batzuk egin baditugu betetzeko direla.

Beraz, abiapuntua guztion adostasunetik datorrenez, oroitaraztea ez da ulertu behar inposizio bezala, laguntza bezala baizik.

Goiko esaldi hau ondo barneratzea garrantzitsua da eta adibide hau egoki dela iruditzen zait: Kirola egitea ona da. Nik kirola egin nahi dut. Baina kirola egiteak diziplina eskatzen du eta jende askorentzat, adibidez, errazagoa da etxean gelditzea korrika egiten joatea baino. Nire osasunarentzat korrika egitea garrantzitsua dela erabakitzen badut, mekanismoak bilatu beharko ditut astean hainbat aldiz korrika egiteko. Mekanismo horietako bat lagun bat bilatzea izan daiteke, horrela jakinean norbaitekin geldituta nagoela zailagoa da huts egitea. Bada, euskarari aplikatzen badiogu, hor ikus daiteke tratuak egitearen garrantzia.

4.4. TRATUAK EGIN

4.4.1. Zeinentzat tratuak

Gure helburua lantegi osoa inplikatzea eta horretarako tratuak egiterakoan honako banaketa egin dugu: a) gutxi dakitenak; b) Erdizka dakitenak eta c) euskal hiztunak. Maila bakoitzean tratu lorgarriak eskainiko zaie, izan ere, helburu nagusia egindako tratu guztiak betetzea baita.

Tratuak egiterakoan banan-banan langile gehienekin hitz egin behar dugu eta horrek ere lagundu egiten du konfiantza giroa lortzeko. Tratu zuzena beti da mesedegarria. Oso kontuan izan behar dugu lantegi handi hauetan jende askok ez duela elkar ezagutzen eta kasu askotan ez dute izan inolako harremanik. Fagor Electronica Koop.E.ren kasuan 400 lagun inguru (aldatu egiten da) dira bertako langileak eta Soraluze Koop. E.ren kasuan 200 lagun inguru.

4.4.2. Tratuen kopurua eta sailkapena

Tratuen kopurua izugarria izan daiteke. Lantegi barrura begira eta lantegi kanpora begira egin daiteke banaketa eta tratuen zerrenda printzipioz guk nahi beste luza dezakegu. Tratuak egin izan dugu erabilera taldeetan edo departamentu txikietan eta normalean horrelako egoeretan tratuen kopurua handia izaten da. Oraingo honetan, aurretik esan dudana bezala, lantegi guztira heldu nahi dugu eta hori dela eta goian aipatutako taldeentzat bost edo sei tratu nahiko dela iruditzen zaigu. Beraz, langile bakoitzari fitxa banatuko zaio. Fitxa hori hiru multzotan banatuta dago eta berak aukeratu beharko du zein multzotan kokatzen duen bere burua, beti ere fitxa ematerakoan hitz egingo duen lagunaren laguntzarekin.

Hau da banatu dugun fitxa:

LUZATU












BOSTEKOA






EUSKARARI

Zeure euskara hobetu eta albokoak lagundu nahi dituzulako



Euskara desagertze arriskutik atera nahi duzulako

		Tratuak egin	Zein hartzen duzu? Adquieres este compromiso?
	Izena:		
<p>Gutxi dakitenak Los/as que saben un poco</p>		<p>Euskara eskoletan izena emango dut Apuntarme a clases de euskera</p>	
		<p>Telefonoz lankideekin lehen hitza euskaraz egingo dut Con los compañeros/as haré la primera palabra por teléfono en euskera</p>	
		<p>Agurrak euskaraz egingo ditut Saludaré en euskera</p>	
		<p>Egoera informalean euskaraz hitz egiteko eskatuko diet euskal hiztunek Pediré a los/as vascoparlantes que me hablen en euskera en situaciones informales</p>	
		<p>Eguneroko egoeratan galdera motzak, esaldi laburrak euskaraz egingo ditut En situaciones diarias haré en euskera, preguntas fáciles, frases cortas</p>	
<p>Erdizka dakitenak Los/as que saben a medias</p>		<p>Euskara eskoletan izena emango dut Apuntarte a clases de euskera</p>	
		<p>Mintzataldeetara joango naiz Iré a las clases de mintzapraktika</p>	
		<p>Telefonoz euskaraz egingo dut Por teléfono hablaré en euskera</p>	
		<p>Lankideekin euskaraz egingo dut: Hablaré en euskera con los/as compañeros/as:</p>	
		<p>Egoera informaletan euskaraz hitz egingo dut: Hablaré en euskera en situaciones informales con los/as compañeros/as:</p>	
	<p>Euskal hiztunei euskaraz hasteko eskatuko diet Pediré a los vascoparlantes que empiecen en euskera</p>		

Euskal hiztunak	Vascohablantes		Lankideekin euskaraz egingo dut: Hablaré en euskera con los/as compañeros/as:	
			Telefonoz euskaraz egingo dut Por teléfono hablaré en euskera	
			Euskaldun berriei eta euskara ikasten dabiltzanei euskaraz egingo diet Hablaré en euskera a los/as euskaldunberris y a los/as que están aprendiendo euskera	
			Bilera eta aurkezpenetan, sarrera eta bukaera euskaraz egingo ditut En reuniones y presentaciones, haré en euskera la introducción y el final	
			Bezero euskaldunekin euskaraz egingo dut Hablaré en euskera con los clientes que sepan	
Beste konpromiso bat(zuk) / Otro(s) compromiso(s)				

4.4.3. Tratuak nola egin

Banatuko zaien fitxa euskaraz eta gaztelaniaz egongo da mundu guztiak ulertu ahal izateko, beti lehentasuna euskarari emanez. Bi lantegietan fitxa berak erabili ditugu, beraz, hemendik aurrera fitxak lantegiko logotiporik gabe agertuko dira.

Fitxa hasieran izenaren atala dago eta bakoitzak bere izena jarriko du. Ikus daitekeen bezala tratu bakoitzari ikur bat dagokio eta horrela behin fitxa hau bete ondoren, datozen fitxetan esaldia bere osotasunean agertu beharrean ikonoak besterik ez dira agertuko. Beraz, behin multzoa aukeratu ondoren, multzo horretako aukera bakoitzean gurutze bat egingo du, tratu hori beregain hartzen badu.

Eta bukaeran baten batek beste traturen bat egin nahi badu, aukera hori eskaintzen zaio.

4.5. ZABALKUNDEA

Behin tratuak egin ondoren, tratu horiek fitxetan multzokatu ditugu eta horretarako gune naturalak aukeratzea ikusi da egokiena, beraz, lantegia departamentuka edo sekzioka banatuta dagoenez, fitxa bakoitzean departamentu edo sekzio bakoitzeko langile guztiak sartu ditugu.

Eta hemendik aurrera, zerbait pertsonala izaten jarraitzen badu ere, zerbait kolektiboa ere bilakatzen da, hots departamentuak bere osotasunean egin dituen tratuak, eta gauza batzuetarako egokiago ikusten da arlo pertsonalarekin aritzea baino arlo kolektiboarekin aritzea. Horrela, departamentu bakoitzean ehuneko zenbatek egin dituen tratuak egin daiteke publiko eta horrela, pertsonak baino departamentuak edo sekzioak konpara daitezke.

4.5.1. Publikotasuna

Garrantzitsua ikusten dugu publiko egitea bakoitzak egindako tratuak. Honek burukomin bat baino gehiago ekarri digu gutxi batzuk esaten zutelako tratuak egitea zerbait pertsonala dela eta bakarrik bakoitzari dagokiola jakitea zein tratu hartu duen eta zein ez. Gure planteamendua, berriz, tratuak publikoak izan behar direla izan da hasieratik, horrela guztiok dakigu aldamenekoak zein tratu egin duen eta eraginkorragoa izan daiteke. Adibidez, albokoak euskaraz hitz egitea aukeratu badu eta nik ere, bada, euskaraz zuzentzea errazago izan daiteke.

Beraz, departamentu bakoitzean bertako langileekin osatutako fitxa bete dugu eta fitxa hori departamentuko hainbat tokitan jarri dugu.

Fitxa horretan tratuak egin dituztenak azalduko dira bakarrik. Hasieran langile guztiak agertzearen aukera aztertu zen eta tratuak egin ez dituztenen atala hutsik agertu, baina azkenean egokiago ikusi zen partehartzaileak bakarrik agertzea.

Beraz, aurretik aipatu den bezala izen bakoitzaren ondoan (nik lan honetarako izenak jarri beharrean zenbakiak jarri ditut) ikonoak agertuko dira eta beste zutabe batean ikonoaren esanahia.

Beraz, horrela gelditu da fitxa:

LUZATU













































































BOSTEKOA

EUSKARARI

Zeure euskara hobetu eta albokoak lagundu nahi dituzulako



Euskara desagertze arriskutik atera nahi duzulako

		1. Plantako zuzenekoak						
Euskal hiztunak, erdizka dakitenak eta gutxi dakitenak Vascohablantes, los que saben a medias y los que saben un poco	bat							
	bi							
	hiru							
	lau							
	bost							
	sei							
	zazpi							
	zortzi						Euskaraz egiteko tratuak <i>Compromisos hacia el euskera</i>	
	bederatz						 Bileren hasiera eus <i>Comi. de reuniones</i>	
	hamar							Euskara eskolak <i>Clases de euskera</i>
	hamaika							Mintzapraktika klaseak
	hamabi							Telefonoz <i>Por teléfono</i>
	hamahiru							 Agurrak <i>Saludos</i>
hamalau							Esaldi laburrak... <i>Frases cortas....</i>	
hamabost							Lankideekin <i>Con los compañeros</i>	



4.6. JARRAIPENA

Tratuak egin ondoren, jarraipenik egin gabe, esperientziak ondo erakutsi digunez, ahaztuta geratuko lirateke berehala. Jarraipena egitearekin helburu hauek lortu nahi ditugu: alde batetik, oroitaztea tratu batzuk egin ditugula eta bestetik, tratu horiek zein neurrian betetzen ari diren ikustea.

4.6.1. Gogorarazte lanak:

Enpresa batean lehentasun batzuk egoten dira eta egunerokotasunak berak erritmo bizi bat markatzen du. Gehienetan euskara ez da sartzen lehentasun horietan eta euskara plana bultzatzen ari garenok akuilu lana egin beharrean gaude.

Lan honetako beste atal batzuetan aipatu dudan bezala, enpresa handi batean langile guztiengana iristea lan handia da eta guztia ezin da euskara teknikariaren esku gelditu, beraz, lan banaketa bat egin behar da.

Sentsibilizazio edo oroitazte lana euskara teknikariaren esku gelditu ohi da. Modu desberdinak daude jendeari oroitazteko euskara plana martxan dagoela, batzuk zuzenean tratuak egitearekin lotu ditugu eta beste batzuk, ordea, urteko gestio planaren barruan daude eta guztiok baliagarriak dira gure kontzientzia indartzeko.

1. Zuzenean tratuak egitearekin lotuta dauden gogorarazte ekintzak

a) Fitxa publikoa

Aurreko puntuan aipatu dugu departamentu bakoitzean publiko egiten direla guztiok egindako tratuak. Departamentu bakoitzean dauden fitxa publiko horiek oroitazten digute egunero tratuen ekintza martxan dagoela.

b) Ordenadorearen bidez bidalitako mezu laburrak

Ez gara iristen lantegi guztira, baina zeharkako langile guztiengana iristeko bide egokia eta eraginkorra da.

c) Mahai gaineko mezuak

Honekin langile guztiengana iristen gara eta guztioi ez ematearren mezu bera, lau edo bost idatz daitezke eta gune berean bakoitzari desberdina eman. Adibidez ETMtik hartutako hau,

LUZATU

BOSTEKOA

EUSKARARI



Zeure euskara hobetu eta albokoak lagundu nahi dituzulako

Euskara desagertze arriskutik atera nahi duzulako



"Izotzen gaineko mudie, edurre ein gurie"

EGUNA: AZAROAK 8

GOGORATU!

...eta ia ez zaigu hitza izozketan. Hitz egin zure hizkuntzan edozein lekutan, momentu edo egoeratan. Izotza urtzeko ez dago euskarak ematen duen berotasuna baino hoberik.

Aste bukaera ederra pasa tratua ahaztu gabe.

Mila esker zure laguntzarengatik

d) Euskara teknikariarekin tratu zuzena


Ona da, nire ustez, tratu zuzena izatea jendearekin eta zuzenean galdetzea nola doazen tratua, zein zailtasun dituzten eta abar. Denbora asko eskatzen du, baina emaitza onak ematen ditu.

e) Ohar tauletan eta euskara txokoetan A3ko sentsibilizazio orri handiak

Ekintza hau bi hilero egin da eta orri handia hamabost egun egon da ohar tauletan eta euskararen txokoetan. Hauek gainera tratua hartu aurretik ere agertuko dira.

Hona hemen adibide pare bat:

Kanpaina martxan jartzerakoan:

<p>LUZATU</p> <p>BOSTEKOA</p> <p>EUSKARARI</p>	<p>Zeure euskara hobetu eta albokoak lagundu nahi dituzulako</p>  <p>Euskara desagertze arriskutik atera nahi duzulako</p>
<p>Geure aukera: zeure euskara hobetu eta albokoak lagundu nahi dituzulako.</p> <p>Nuestra elección: porque quieres mejorar tu euskara y ayudar a los demás</p>	
<p>Denok har dezakegu parte kanpaina honetan: euskara dakigunok, erdizka dakigunok eta gutxi dakigunok. Garrantzitsuena tratuak egitea: bakoitzak bere neurrikoak, bakoitzak berak aukeratutakoak. Eta gero bete!</p> <p>Todos podemos tomar parte en esta campaña: los que sabemos euskara, los que sabemos a medias y los que sabemos un poco. Lo importante es adquirir compromisos, cada uno los de su nivel, cada uno los que él elija. ¡Y luego cumplirlos!</p>	

Kanpaina indarrean dagoenean:

<p>LUZATU</p> <p>BOSTEKOA</p> <p>EUSKARARI</p>	<p>Zeure euskara hobetu eta albokoak lagundu nahi dituzulako</p>  <p>Euskara desagertze arriskutik atera nahi duzulako</p>
---	--

Geure aukera: zeure euskara hobetu eta albokoak lagundu nahi dituzulako.

Nuestra elección: porque quieres mejorar tu euskara y ayudar a los demás

Zure autoa gero eta gehiago erabili, gero eta gehiago gastatuko dira gurpilak. Euskara gero eta gehiago erabili gero eta hobeto menperatuko duzu.

Cuanto más uses tu coche más se gastarán las ruedas, pero cuando más uses el euskara mejor lo dominarás.

2007an euskara erabiltzeko hainbat tratu egin ditugu.

Eta zu proiektu honen parte zara?

En el 2007 queremos trabajar los compromisos con el fin de utilizar más el euskara. **¿y tú eres parte de este proyecto?**

2. Sentsibilizatzeko baliagarriak diren ekintzak

Argazki mezudunak

Lekuaren arabera hilean behin edo bi hilero erabiltzen dira argazkiak. Printzipioz argazki polita eta mezu laburra. Argazkiarekin erakarri egiten dugu jendea eta mezuarekin sentsibilizazio lana egiten saiatzen gara.

Ohar tauletan eta euskararen txokoetan jartzen dira, baina ordenadorea duten guztiei Power Pointeko aurkezpen gisa bidaltzen zaie. Hona hemen bi adibide:



Ohar tauletako berriak euskaraz

Hemen hamabostero hainbat gairen inguruko berriak jartzen ditugu euskaraz. Hona hemen adibide bat:

1936ko urriaren 17a, Jose Aristimuño Olaso "Aitzol"en fusilamendua

(Tolosa, 1896 - Hernani, 1936). Gerra aurreko euskal abertzaletasunak eman duen ideologo garrantzitsuenen artean. Nekerik ezagutu ez zuen apaiz-gizona, ehundaka artikulua idatzi zituen hainbat argitalpenetan. "El Día" egunkaria abertzaletu zuen. Horrez gain, Eusko Langileen Alkartasuna sindikatu abertzalea bultzatu zuen etengabe. 1935ean "La democracia en Euskadi" saiakera argitaratu zuen. Faxisten altxamenduan iparraldera jo zuen, Belloc abadiara. Edonola ere, pixka bat beranduago Bilbora joatea erabaki zuen altxatuekin negoziatzeko asmoz. 1936ko urriaren 15ean, Bizkaia aldera zeraman ontzia Pasaian harrapatu zuten faxistek. Aitzol preso hartu, torturatu, eta bi egun beranduago, **urriaren 17an**, Hernaniko hilerriko pareten ondoan fusilatu zuten.



Jose Aristimuño "Aitzol", lehenengo ilaran, ezkerrean
(Argazkia: "Auñamendi" Entziklopedia)

4.7. BETETZE MAILA

Aurreko puntuan jasotako bidez tratuei jarraipena nola egin zehaztu dut eta nolabait zehazteko, arlo psikologikoa landu dut sentsibilizazio eta kontzientzia landuz. Oroitarazi diegu plan bat daukagula eta plan horretan guztiok garela parte. Baina ez dugu neurtu nola doan egindako tratuen betetze maila. Eta datu horiek ere interesatzen zaizkigu. Ez da gure asmoa grabagailu bat jartzea bakoitzari, garbi dugulako hori ezinezkoa dela, ez ditugu behar ezta datu zehatzegiak ere. Neurri handi batean honek ere ikuspuntu psikologikoa lantzen du, baina oraingoan betetze maila zenbaki batera, ehuneko batera eraman nahi dugu.

Aurreko ataletan aipatu dugun departamentuka erabilitako fitxa publikoa erabiliko dugu oraingoan ere, baina hainbat aldaketa eginda.

4.7.1. Nola bete?

Aurretik ere aipatu izan dut lantegi osora iristeko kolaboratzaile asko behar ditugula. Tratuak egiterakoan departamentu bakoitzean kolaboratu duen pertsona berak kolaboratu beharko luke oraingoan ere eta berak galdetu beharko luke banan-banan betetze maila nolakoa den. Beraz, hilean behin pertsona horrek bere departamentuan tratuak egin dituzten pertsona guztiei galdera sinple bat egin die: zure ustez egindako tratuetatik ehuneko zenbat betetzen ari zara? Eta berak esandako ehunekoa jarri du taulan.

Beraz, taulako ezkerreko zutabetan departamentuko langileen izenak daude. Ondorengo zutabeetan hilabeteak. Posible da hilero edo bi hilero galdetzea, hori enpresa bakoitzean zehaztu behar da. Niri iruditzen zait hilero gehiegi dela, luzaroan mantendu behar bada, bi hilero egokiago ikusten dut.

Azkeneko zutabeetan berez beteko den hilabete guztietako batz bestekoa jarriko dugu. Alde batetik, langile bakoitzak kanpaina amaitzerakoan zein betetze maila izan duen ikusiko dugu eta bestetik, beheko zutabeetan departamentu guztiko betetze maila ikusiko dugu. Honek, aukerak ematen dizkigu departamentu arteko lehia bultzatzeko eta interesgarriago ikusten dugu kolektiboan arteko lehia sana bultzatzea, banakoen artekoa baino.

Hona hemen fitxa horien adibide bat:

LUZATU

BOSTEKOA

EUSKARARI

Zeure euskara hobetu eta albokoak lagundu nahi dituzulako



Euskara desagertze arriskutik atera nahi duzulako

Konpromisoen jarraipen fitxa

Departamentuaren izena: betetze maila hilero ehunekotan							
	Langileen izenak	Maiatza	Uztaila	Iraila	Azaroa	Urtarrila	Guztira
Euskal hiztunak, erdizka dakitenak eta gutxi dakitenak Vascohablantes, los que saben a medias y los que saben un poco	bat	65	70				67,5
	bi	40	40				40
	hiru	70	75				70
	lau	60	60				60
	bost	80	80				80
	sei	50	60				55
	zazpi	Bajan dago	40				40
	zortzi	90	90				90
	bederatzi	40	80				60
	hamar	80	50				70
	hamaika	75	50				62,5
	hamabi	75	65				70
	hamahiru	30	30				30
	hamalau	85	85				85
	hamabost	80	80				80
	hamasei	Kanpoan dago	90				90
hamazazpi	80	Bajan				80	
	Departamentuko emaitzak	72,22	70,87				

4.7.2. Nahia eta errealitatea

Nahia eta errealitatea nahastu egin daitezke eta horregatik tarteka gauzak bere lekuan jartzea komeni dela iruditzen zait. Bakoitzak esaten du bere betetze maila zenbatekoa den, baina euskararen erabilera lantegi guztian neurtzen dugu urtean bi aldiz eta departamentuko datuak ere ateratzen dira. Beraz, interesgarria ikusten dut parekatzea, adibidez, erabileraren datu errealak eta beraiek esandakoaren betetze maila. Badakit gauza biak ezin direla erabat parekatu, besteak beste kontzeptu desberdinak direlako, baina lagungarria izan daiteke jendeak ikusteko askotan esaten dutena edo nahiko luketena eta errealitatea ez datozela bat. Gauzak aldatzeko saiatzeaz gain, ahalegin bat, aldaketa bat eskatzen dela agerian gelditu eta hori ondo barneratu behar da.

4.8. ERREFORTZUA ETA ERREKONOZIMENDUA

Errefortzua plangintza osoan landu dugu, oroitarazte ekintzak egin ditugunean, ordenadorea erabiliz, ohar tauletan jarritako fitxekin, departamentuetan tratuak publiko eginez eta langile bakoitzarekin hitz egin dugunean. Edozein modutan, errefortzua lantzeko egindako ekintzak pertsona guztientzat ez dute balio bera, eta pertsona bakoitzak zen nahi duen gehiago identifikatzen jakin beharko genuke. Adibidez, fitxa publikoa izatea errefortzua izan daiteke eta beste batzuentzat aurkakoa. Beraz, oreka bat lortu behar dugu.

Errekonozimendua era askotakoa izan daiteke. Bi bereizketa egingo nuke: errekonozimendua era pribatuan edo errekonozimendua era publikoan.

a) Errekonozimendua era pribatuan

- Pertsona batekin zuzenean hitz egitea izan daiteke errazena, esanez hartutako tratuak ondo betetzen ari dela nabaria dela eta zorionak emanez.
- Gutun pertsonala edo posta elektronikoa modu pertsonalizatuan erabil daiteke.

b) Errekonozimendua publikoa


- Bilera batean zoriendu.
- Ohar tauletan ohar bat jarri tratuak zeintzuk bete dituzten ondoen esanez.
- Lantegiko berripaperean artikulua idatzi eta argazkia atera.
- Diploma bat eman kanpaina amaieran.

Ikus daitekeen bezala, modu desberdinak daude, garrantzitsuena da identifikatzen jakitea zein pertsona egongo den gusturago errekonozimendu modu batekin eta zein bestearekin.

4.9. PROZESU ERREPIKAKORRA

Behin errekonozimendua landuta badirudi guk planteatutako prozesua amaitu dela. Neurri batean egia izan daiteke, guk planteatutako helburuak honekin amaitzen baitira. Baina euskararen erabilera arlo guztietan normalizatu arte tratuak egiten jarraitu beharko dugu nahiz eta planteamendua era batekoa edo bestekoa izan.

Beraz, gure ustez, prozesu errepikakor baten aurrean gaude. Prozesu honek bost multzo handi izango lituzke: sentsibilizazio lanak, tratuak egin, zabalkundea, jarraipena eta errekonozimendua. Gainera, hemen aipatutako herrenkadan doaz multzo horiek marrazki honetan ikus daitekeen bezala:



5. EMAITZEN AZTERKETA ETA BI ENPRESEN ARTEKO DESBERDINATASUNAK

5.1. TRATUEN PROZESUA MARTXAN JARRI

Bi enpresatan garai berean jarri zen martxan tratuen prozesua, baina langileengana iristeko prozedura desberdina izan zen.

Fagor Electronica Koop. E.n organo sozialetik bideratu genuen gaia, hau da Kontseilu Sozialetik. Organo honetan lantegiko departamentu edo sekzio guztietako ordezkariak daude. Hilero biltzen da organo hau enpresaren inguruko gaiak jorratzeko eta, ondoren, ordezkari bakoitzak bertan esandakoa departamendu edo sekzio guztiarekin konpartitzen du bertan esandakoa, horretarako antolatzen diren kontseilutxoak izeneko bileretan. Nik Kontseilu Sozialeko kide guztiei aurkeztu nien tratuak egitearen prozesua, hau da, lan honetako aurreko puntuan aipatzen den informazioa, eta gero beraiek arduratu ziren informazioa hau Kontseilutxoak izeneko departamentu edo sekzio bakoitzeko bileretara eramaten. Edozein modutan, kontseilutxoetara joateko prest nengoela esan nien, bertan berriz ere guztiei azaltzeko.

Soraluce Koop. E.n bilera operatiboetatik bideratu genuen gaia. Bilera hauek departamentu edo sekzio arduradunak eramaten ditu aurrera eta behararen arabera antolatzen dira. Hasiera batean giza baliabideko zuzendaria eta euskara teknikaria bilera horiek zuzentzen dituzten pertsona guztiekin egon ginen azalduz gure asmoa zein zen. Eskatu genien euskara teknikariarekin adosteko bilera eguna eta bilera horietako bakoitzera euskara teknikaria joan eta hogeit bat minututan azaldu zitzaizen tratuak egitearen prozesua.

Organo sozialaren egitura ondo funtzionatuz gero, ez litzateke egongo desberdintasunik bata eta bestearen artean, baina funtzionamendua ez denez egokiena, askoz hobe funtzionatu zuen bilera operatiboetatik bideratu zena. Soraluken langileen partehartzea askoz handiagoa izan zen eta esan daiteke ia langile guztiei zuzenean azaldu niela prozesua, aukera emanez galderak egiteko eta haien kezkek argitzeko. Elektronikan kontseilutxoetan partehartzea txikiagoa da eta gainera kontseilutxoetako ordezkari bakoitzaren eskuetan utzi nuen erabakitzea berak edo nik aurkeztuko genien. Kontuan izanda kasu askotan bilera ere ez dela egiten eta akta bakarrik pasatzen dela, ez da ziurtatzen hainbat kasutan langile guztiengana informazioa zuzen iristea.

Ondorio gisa esan dezaket Soraluce Koop. E.n hobeto bideratu genuela gaia eta langile guztiengana zuzenean iritsi ginela. Horrek motibazioa indartzeko laguntzen du eta aukera

gehiago ematen du antolatutako ekintza hobeto irteteko. Bestalde, Fagor electronican langile batzuei banan-banan azaldu behar izan genien hainbat puntu eta horrek ahalegin handiagoa eskatu zigun.

5.2. SENTSIBILIZAZIO LANA

Arlo honetan ez dago desberdintasunik. Bi enpresetan eduki bera erabili da, aurretik aipatu bezala, enpresa bakoitza kokatuta dagoen herrira egokitu dugun arren informazioa, adibidez, euskararen erabilera, ezagutza eta matrikulazio datuak.

Urtean zehar egindako sentsibilizazio lanak ere berdintsuak izan dira, bietan erabili baitugu ohar taulak argazki mezudunak edo bestelako informazioak jartzeko.

5.3. PARTEHARTZEA

Bi enpresetan parte hartzea oso handia izan da. Izan ere, bietan %90tik gorakoa izan da parte hartzea. Fagor Electronica Koop. E.n 351 langile zeuden tratuak egiten hasi ginenean. Langile horietatik 322 langile hartu dute parte, hau da %91,7. Soraluken, berriz, 195 langiletik 184k hartu dute parte, hau da, %94,3.

Arlo honetan azpimarratu nahi dugu jendearen gainean egon garela eta hori izan daiteke partehartze handiaren arrazoia. Bestalde, gaur egun ez da “politikoki zuzena” euskararen aurka azaltzea, beraz, ehuneko txiki bat tratuak egingo zituen arrazoi horrengatik. Dena dela, gehiengoak ulertzen ditu horrelako ekintzak egitearen arrazoiak eta baita eskertu ere. Edozein modutan, garbi izan behar dugu oraindik lantegiko dinamikak eramaten duela jendea gaztelania erabiltzera, ondo errotutako ohiturak ez direlako alde batera uzten egun batetik bestera. Gainera, euskal hiztun askok arlo batzuetako euskara ondo menperatu arren, beste batzuetan arazoak ditu terminologia eta abarrekin. Bestalde, adin batetik gora alfabetatutako kopurua jaitsi egiten da eta hori ere gainditu beharreko arazoa da.

5.4. JARRAIPENA

Jarraipena era desberdinetan egin da. Soraluceco koop. E.n erabaki zen departamentu bakoitzean langileekin tratuak egiten ibili zen pertsonak jarraipena ere egingo zuela. Jarraipena egiteak beti suposatzen du presio egitea, baina guk alde horretatik baino, oroitarazte ikuspuntuari eman nahi genion garrantzia.

Bi hilero egin dugu jarraipena eta lana dela edo lan hori egin behar duenaren ezegonkortasuna dela, batzuei oso gogorra egiten zaie banan-banan jendeari galdetzea.

Departamentu batzuetan aldatu egin dugu horretaz arduratzen den pertsona eta hirugarren jarraipenerako lortu dugu departamentu guztietako fitxak beteta egotea.

Fagor Electronicaco Koop. E.n jarraipenik ez egitea erabaki da. Nire ustez erosotasunak bultzatu die Euskara Batzordeko partaideei erabaki hau hartzera, izan ere, gogorra iruditzen zaie bi hilero jendeari banan-banan galdetzea. Nire ustez erabaki okerra izan da, zuzenean ez garelako jendearen gainean egon, bakarrik aurreko puntuetan aipatutako oroitarazte lanak egin ditugu ohar tauletako fitxak eta bestelakoak erabiliz.

5.5. HELBURUEN AZTERKETA

Lan honen hasieran ekintza honekin lau helburu lortu nahi ditugula aipatzen dut: euskara planaren berri lantegi guztian zabaltzea, kontzientzia eta motibazioa indartzea, euskarazko klaseetan jendea apuntatzea eta euskararen erabilera handitzea. Banan-banan aztertuko ditugu puntu hauek.

5.5.1. Euskara planaren berri lantegi guztian zabaltzea.

Helburu hau neurri handi batean bi enpresetan lortu da. Edozein modutan, Soraluze Koop. E.ko bilera operatiboetan jende gehiagok hartu duenez parte, langile gehiagorengana iritsi gara eta nire ustez informazioa egokiago iritsi zaie euskara teknikaria egon delako bilera guztietan eta prestatu duelako gaia. Gainera, han egon da edozein kezka argitzeko.

5.5.2. Kontzientzia eta motibazioa indartzea.

Helburu hau bete den edo ez esatea agian subjektiboa izan daiteke, baina printzipioz hurrengo bi helburuetan gora egin bada, honetan ere gora egin dela esan daiteke. Izan ere, kontzientzia eta motibazioa indartzen bada, horren emaitzak erabileran islatu behar dira.

5.5.3. Euskarazko klaseetan jendea apuntatzea.

Tratuak egitearena ohar tauletan euskarazko klaseetara apuntatzeko kartelak jartzea baino askoz zuzenago da, bakoitzari ematen diozulako fitxa bat non eskatzen diozun euskarazko klaseetara apuntatzea.

Puntu honetan kontuan izan behar dugu Soraluze Koop. E.n %80 euskalduna dela eta beraz, jende gutxiago dagoela klaseetara erakartzeko. Bi pertsona gehiago lortu genuen euskarazko klaseetara joatea.

Fagor Electronica koop. E.n ikusgarria izan zen emandako aurrerapausoa. Enpresa honetan %60 da euskalduna. Aurreko ikasturtean 8 pertsona joaten ziren euskarazko klaseetara lantegi osoan eta tratuak egin ondoren 36 langile hasi ziren euskarazko klaseetan. Lantegian bertan hiru talde sortu genituen eta departamentu askotako giroan ere nabaritu zen interes


gehiago zegoela. Beraz, arlo honetan Fagor Electronica Koop. E.ko emaitzak hobeak izan dira.

5.5.4. Euskararen erabilera handitzea.

Aurretik ere aipatu dugu euskararen erabilera urtean bitan neurtzen dugula Electronica Koop. E.n eta hirutan Soraluze Koop. E.n. Honek aukera ematen digu esateko “tratuak egin” kanpaina aurretik zein joera zegoen ikusteko eta handik urtebetera zein emaitzak zeuden ikusteko. Beraz, datu horiek objektiboak dira. Gainera, datu hauetan neurketa bateko emaitzak ikusteaz gain, neurketa desberdinak izanez, zein joera dagoen ikus daiteke eta azken honi ematen diogu garrantzia.

Hona hemen neurketak egiten hasi ginenetik lortutako emaitzak:

Fagor Electronica Koop. E.




Euskarazko planaren diseinua egin eta inplementatzen hasi zenean, grafikoan ikus daitekeen bezala, 2001etik 2003ra gutxi gora-behera, gorakada handia egin zen euskarazko erabileran grafikoan ikus daitekeen bezala. 2003-2004an maila batean mantendu ondoren, jaisten hasi zen eta 2006an “tratuak egin” kanpainarekin hasi zen berriz gorantz, eta momentuz, joera horri eusten zaio. Ikus daitekeen bezala 2006ko maiatzeko neurketan %23ra arte jaitsi zen erabilera eta tratuak egin eta urtebetera %32an zen erabilera. Beraz, emaitzak hor daude eta tratuak egitearekin batera gorantzko joera indartu zen eta esan daiteke 9 puntuko igoera izan dugula. Hurrengo erronka, beraz, honi eustea eta gorantz jarraitzea.

Soraluce Koop. E.

Ezer baino lehenago esan behar dut Soraluce. Koop. E.ak baduela beste berezitasun bat. 2005ra arteko neurketak bakarrik euskara plana inplementatzen ari zen guneetan egiten zen neurketa. Hortik aurrera lantegi osoan egiten genuen neurketa, eta pixka bat jaitea normalizat hartu behar da.

Begira hurrengo grafikoa:



Soraluce Koop. E.n urtean hirutan neurtzen da euskararen erabilera. Horregatik urte bakoitzak a, b eta c hizkiak ditu. 2006an tratuak lantzen hasi ginenean beheranzko joera nabarmena zen eta hortik aurrera igotzen hasi zen etengabe. 2006ko lehen neurketatik 2007ko lehen neurketara 10 puntu egin zuen gora.

5.6. PLANTEATUTAKO HIPOTESIA

Helburuen atalean ikusi dugun bezala, hauek bete egin dira. Ez genuen esaten zenbat lagun joan behar ziren klaseetara edota erabilera zenbat puntutan egin behar zuen gora. Kuantifikatu gabe joera aldatzea eta erabileraren kasuan, adibidez, beheranzko joera gelditu eta erabilera goranzko bidean jartzea planteatzen genuen eta bi enpresetan lortu egin da eta horretarako datu objektiboetan oinarritu gara. Zalantzarik gabe esan dezakegu euskararen erabilera handitu egin dela bi lantegietan.

6. BIBLIOGRAFIA

- EMUNeko barne proiektua (2004): *EzTauMusik. Euskararen Trena martxan*.
- EMUNeko barne proiektua (2006): *Tratuen metodologia*.
- Etxeberria Arizaga, Maite (2004): *Diskurtsoetatik jokaeretara: analisia eta ekintza plana*. Hiznet 2003-04 ikasturteko sakontze egitasmoa.
- HIZNET 2005-06 ikasturteko 13. ikasgaia: *Hizkuntzazko jokaeraren aldaketa prozesua*.
- HIZNET 2005-06 ikasturteko 4. ikasgaia: *Ikuspegi soziologikoa eta gizarte psikologiarena*.
- Irastorza, J.L. (2003): *Euskararen aldeko jarrera enpresetako euskara planetan*. Psikopedagogia. 2003 KAP.
- Sanchez Carrión, J. M., "Txepetx" (1987): *Un futuro para nuestro pasado, claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia. Elkar.